

FUNTZESKO BALIABIDEAK:

Guk arropa saltzen dugu eta noski arropa denda asko daude. Horregatik, gure diseinu berritzaileak sortuko ditugu eta gure enpresa ezberdina izango da:

Arropa egiteko materialaren kalitatea oso garrantzitsua da. Gaur egun hainbat dendetan saltzen duten arropa ez da kalitate onekoa eta bezero asko galtzen dituzte. Horregatik gure prezioak pixka bat igoko ditugu kalitate oneko arropa sortzeko.

Hasteko beharko dugun dirua ezinbestekoa da gure enpresa promozionatzeko. Hasieratik diru asko inbertituko dugu marketing gunean, uste dugulako faktore guztietatik garrantzitsuenetariko bat izango dela. Online denda berri bat izanda ospea lortzea ezinbestekoa da salmentekin hasteko. Gutxi gora behera 2000€ inbertituko dugu.

Gainera, plataforma sortzeko diru kantitate bat ordainduko dugu informatiko batzuk gure arduraduna lagun dezaten. Oraindik ez dakigu zein enpresarekin elkartuko garen webgunearen garapenerako. Hala ere, seguruena da autonomoekin lan egitea.

2 buruzagi gara eta gure arteko harremana oso garrantzitsua da enpresa aurrera ateratzeko, diseinuak egiteko eta bezeroekin harreman ona izateko.

Laburbilduz:

Baliabide fisikoak: Lokala (Garajea/Txokoa), Ordenagailua, Josteko makinak, Telefonoak, Materialak... + Online plataforma (sistema informatikoa). Gure lokala Gorlizeko elizaren ondoan kokatuko dugu, eta lokal honen barnealdean ordenagailuak, makinak, telefonoak eta materialak izango ditugu. Hauek lortzeko, enpresa desberdinekin elkartuko gara.

Baliabide intelektualak: Peioren sormena eta diseinatzeko ideiak, Jon Anderren produkzio trebezia eta gaitasuna + webguneak sortzen esperientzia. Peioren beharrezko behaketa etorkizunera begira aldaketak egiteko eta ideia berriak sortzeko. Bion trebetasun sozialak bezeroak erakartzeko. Bestalde, "lows" izena eta logoa patentatuko dugu. Diseinuak egiteko sormena Peioren ardura izango da. Beraz, berak asmatu eta marraztuko ditu. Aldi berean, disenu hauek digitalizatzen Jon Anderrek arituko da.

Finantza baliabideak: Eskudirua erabiltzen saiatuko gara momentuz makinak eta materialak soilik erosi beharko ditugulako eta inbertsio gehiena marketingean egingo dugulako. Aurrezturik 4000€ inguru ditugu. Hala ere, behar izanez gero, kreditu txikiren bat eskatzeko prest egongo gara (5000€tatik beherakoak momentuz enpresa txikia garelako) 6000€ko kapital soziala izango dugu.

